



AIARAKO UDALAK 2021eko IRAILAREN 23an EGINIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

Susana Martín Benavides andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera
jauna

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendíbil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko irailaren hogeita hiruan, hemeretziak eta bost direnean, Udalbatza Osoa modu telematikoan bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

Susana Martín Benavides zinegotzi andrea ez da bilkura hasieran egon. Beranduago batu da.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2021eko uztailaren 22an eginiko ohiko bilkuraren akta

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esan du aktaren zortzigarren puntuan berak idazkariarekin hitz egindakoa jaso ez dela. Honi gehitzen dio 34. orrialdeko lehen iruzkina ez zuela Unai Campo jaunak egin, baizik eta Gentza Alamillo jaunak.

Parte-hartzeak bukatuta, aho batez erabaki da, adierazitako zuzenketekin, akta hori onestea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) esku hartu eta osoko bilkurako gai-zerrenda euskaraz eta gaztelaniaz bidali izana eskertu du.

2.- Onestea, egokia bada, 2020ko kontu orokorra



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du eta adierazi du Kontu Orokorraren irizpena Kontu Batzorde Bereziak eman zuela; ALHAOn argitaratu zen eta erreklamaziorik egin ez zenez, Udalbatzak onetsi du.

Gai honi buruzko iruzkinik egon ez denez, bozkatu da eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute (Susana Martín Benavides andrea izan ezik, bozketa egindakoan ez zegoelako.)

Honako hau dio:

HAU IKUSI DA.- Aiarako Udalaren 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorra, espedientean erantsitako dokumentazio guztiarekin batera, indarrean dagoen legediaren arabera.

HAU IKUSI DA.- Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrek, 2021eko uztailaren 13an, 2020ko ekitaldiko Aiarako Udalaren Kontu Orokorraren aldeko irizpena ematea erabaki zuen, eta hori jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, epe horretan zehar, interesdunek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak, eragozpenak edo oharak aurkezteko.

Kontu Orokorra 2021eko uztailaren 28ko 84. ALHAOn argitaratu da.

HAU IKUSI DA.- Idazkaritza kontu-hartzaitzak egindako txostenaren arabera, 2021eko uztailaren 29aren eta 2021eko abuztuaren 18aren artean, interesdunek ez dute 2020ko Kontu Orokorrari buruzko idatzirik aurkeztu.

HAU AINTZAT HARTU DA.- Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorren txostena eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluan ezarritakoa.

Udalbatzak Osoak, bertaratutako guztien adostasunez (Udalbatza 11 zinegotzik osatzen dute, 10 bertaratu dira), **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Onestea 2020 ekitaldiko Aiarako Udaleko Kontu Orokorra.

BIGARRENA.- Onetsitako Kontu Orokorra bidaltzea Herri Kontuen Euskal Epaitegira, kontua osatzen duten dokumentu guztiekin batera. Hori guztia Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 63.5 artikulua arabera.

3.- Onestea, hala badagokio, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen elkartearen arteko lankidetzak-hitzarmena Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gelako zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeko

Gaiaren inguruan inolako iruzkinik egin gabe bozkatu egin da eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute (Susana Martín Benavides andrea izan ezik, bozketa egindakoan ez zegoelako.)

Honako hau dio:



HAU IKUSI DA.- Udalak guraso elkarteri giza- eta hezkuntza-arretan laguntzeko duen interesa, Etxaurren Ikastolan egiten den hezkuntza-lana osatu, hobetu eta zabaltzeko.

HAU IKUSI DA.- Guraso elkarteak betetzen duen eginkizun nagusietako bat laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelari laguntza zerbitzua bermatzea da.

HAU IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, 2021eko ekitaldirako.

HAU IKUSI DA.- Kirol eta Gazteria Batzordearen aldeko txostena, 2021eko irailaren 14koa.

HAU AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmen honek Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen aldeko dirulaguntza arautzen du, eta udal-aurrekontuan bi partida izendun daude; hauek hitzarmena sinatzeak Udalarentzat suposatuko duen gastua bere gain hartzeko kreditu nahikoa eta egokia dute.

Udalbatzak Osoak, bertaratutako guztien adostasunez (Udalbatza 11 zinegotzik osatzen dute, 10 bertaratu dira), **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA. – Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen elkartearen arteko 2021eko ekitaldirako lankidetzeta-hitzarmena onestea Etxaurren Ikastolako giza- eta hezkuntza-arreta bultzatzeko, laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelako laguntza-zerbitzua bermatuz. Horren bidez, guraso elkarteri 57.557,51 euroko zuzeneko dirulaguntza emango zaio. Hemen hitzarmenaren testua:

AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ETXAUREN IKASTOLAKO LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOKO ZERBITZUA (PSIKOLOGOA) ETA BI URTEKO GELAKO ZERBITZUA (LAGUNTZAILEA) FINANTZATZEKO.

Aiarako udaletxean, 2021ean.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA, Aiarako Udaleko alkatea (NAN zk.: 44.686.448-R), Aiarako Udaleko idazkari Naiara Lazpita Marcos andreak lagunduta, ekitaldiaren fede ematen baitu.

Beste aldetik, ANA CRISTINA MARTINEZ SOLAEGI andrea, Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteko presidentea (NAN zk.: 44.975.776-N).

ESKU HARTZEN DUTE:



Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkarietan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorri.

Bigarrena, Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen ordezkaria eta honen izenean (NAN zk.: 44.975.776-N).

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetz**a-hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

***I.-** Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak (Etxaurren Ikastolako ikasleen gurasoen elkarteak) giza- eta hezkuntza-arretan lan garrantzitsua egiten du haien erreferentzia-ikastetxean, Etxaurren Ikastolan, egiten den hezkuntza-lana osatzeko, hobetzeko eta zabaltzeko Aiarako Udalaren laguntzarekin.*

***II.-** Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen eginkizun nagusietako bat, Aiarako Udalaren laguntza ekonomikoarekin, Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelako zerbitzua bermatzea da, horretarako beharrezkoak diren teknikariak kontratatuz.*

***III.-** II. puntuan deskribatutakoa garatzen jarraitzea aho batez ezinbestekoa dela ikusita, Aiarako Udalak - Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen adostasunarekin – elkarte horri bere laguntza ekonomikoa arautzea erabaki du 2021. urterako dirulaguntza arautzen duen hitzarmen honen bidez deskribatutako helburuarekin Aiarako Udala eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen artean*

***IV.-** Aplikatu beharreko legeria zehatz betez, eta toki-erakundeek lankidetz*a-hitzarmenak sinatzeko duen gaitasuna kontuan hartuta, *bi aldeek lankidetz*a-hitzarmen hau formalizatu dute eta bete beharko dituzte hurrengo

ESTIPULAZIOAK:

***Lehenengoa.-** Hitzarmenaren helburua **ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTE**ari, Etxaurren Ikastolak 2021. urtean, laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gelako zerbitzua (laguntzailea) berma dadin dirulaguntza ematea da. Zerbitzu hauek izatea ezinbestekotzat jotzen da Aiarako udalerriko Etxaurren Ikastolak zerbitzu ematen dion eskola-komunitatearen giza- eta hezkuntza-arretarako.*

***Bigarrena.-** Hitzarmen honetan **AIARAKO UDALAREN** eta **ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTE**aren arteko 2021erako lankidetz*a zehazten da, Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gelako zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeari dagokionez, hurrengo eginkizunak betetzeko:

Laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa):

- *Irakasleekin*
 - *Laguntza-gelako koordinatzailea, ikastetxeko orientatzailearekin batera.*
 - *Logopedarekin koordinatzea.*
 - *PTarekin koordinazioa.*



- *Berritzeguneko orientatzailearekin koordinatzea.*
- *Ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko, psikologoa astean behin ikastetxeko irakasle bakoitzarekin eta PTarekin koordinatuko da.*
- *Irakasleen formakuntza (emozioak, gatazkak konpontzea).*
- *Irakasleentzako orientazio psikologikoa, bai kasu espezifikoenentzako, bai klase osoarentzat.*
- *Tutoretzetan lan egiteko materiala ematea (arloan afektiboa, emozioak, arloan psikologikoa...).*
- *Ikasleen jarraipenerako egiten diren bilera guztietan irakasleekin batera parte hartzea.*

- *Ikasleriarekin*
 - *Behaketa, diagnostikoa, esku-hartzea (beharrezkoa bada), eta ikasleriaren jarraipena (guneko orientatzailearekin koordinatuta).*
 - *Ikasleak orientatzea.*
 - *Bost urteko gelako ikasleei, lehen hezkuntzako bigarren mailakoei, lehen hezkuntzako laugarren mailakoei, seigarren mailakoei eta behar duten ikasleei proba psikologikoak egitea.*

- *Familiekin*
 - *Familiarentzako zuzeneko arreta.*
 - *Orientazio-lanak.*
 - *Gurasoentzako hitzaldiak antolatzea eta koordinatzea (sexu-hezkuntza afektiboa, gatazkak konpontzea...).*

- *Bestelako funtzioak*
 - *Zuzendaritza-taldeko kidea irakasle izan gabe.*
 - *Amara Berriko zuzendaritza-taldeen bileretan parte hartzea Durangon.*
 - *Amara Berriko topaketetan parte hartzea.*
 - *Berritzeguneak emandako formakuntzan parte hartzea.*

Bi urteko gelarako zerbitzua (laguntzailea):

- *Ikasleen higie- eta hezkuntza-beharrei erantzun.*
- *Afektibitate- eta mugimendu-beharrei erantzun.*
- *Irakasleak hezkuntza-proiektuan laguntzea, bai ikasgelan, bai kanpoan egiten diren jardueretan (patioa, psikomotrizitate-gela, ikus-entzunezkoak)*
- *Pixoihala aldatzea eta komuna erabiltzeko hastapena.*
- *Oinarrizko funtzioetan hezteak, hala nola orrazten ikastea, zapatak, mantala eta jaka janzteak, paperontzia erabiltzea, gela jolastu eta lan egin ondoren biltzea.*
- *Autonomia lantzea eta bazkalorduan ohitura egokiak irakastea (ondo esertzea, mahai-tresnak erabiltzea, eskuak eta ahoa garbitzea).*
- *Ikasleak siesta egiteko prestatzea eta lo geratu arte laguntzea.*

Hitzarmen hau 2021. urtean sinatzen da, eta 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arteko iraupena izango du.



Hirugarrena.- Aiarako Udalak **ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA**rentzat onesten duen urteko ekarpen ekonomikoa dagozkion udal-aurrekontuetan jasoko da. Hilero ordainduko da dagokion zenbatekoa; lehenengo ordainketa egin aurretik, Foru Ogasunarekin eta Gizarte segurantzarekin ordainketak egunean daudelako agiria eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak zerbitzuko langileen nominen ordainketak aurkeztuko dira: laguntza psikopedagogikoko psikologoa eta bi urteko gelako laguntzailea.

2021. urterako ekarpen ekonomikoa hau izango da:

- Laguntza psikopedagogikoko zerbitzuko psikologoa
(1.500,00 € balizko bajetarako esleitzen dira) 36.200,27 €
- Bi urteko gelako laguntzailea
(1.500,00 € balizko bajetarako esleitzen dira) 21.387,24 €

2021eko EKARPENA GUZTIRA: 57.557,51 €

2021eko Hitzarmenean esleitutako 3.000,00 euroko zenbatekoa bi lanpostuetan balizko bajak betetzeko izan daitezke; baina beharrezkoa izatekotan, lanpostu bakar batek eragindako gastua betetzeko erabili daiteke, esleitu ziztaion lanpostuan beharrezkoa izango ez dela behin ziurtatuta.

Urteko hitzarmenean balizko bajak betetzeko esleitutako zenbatekoa nahikoa ez balitz, Aiarako Udalak behin-behinekotasunari aurre egiteko aukera aztertuko du, baldin eta aurrekontuak ahalbidetuko balu.

Laugarrena.- Hitzarmena sinatzen den unetik aurrera, **ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA**k Aiarako Udalaren babesa aipatuko du; diruz lagundutako bi zerbitzuei buruzko informazioa hainbat bidetatik zabalduko du.

Bosgarrena.- **ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA**k, dirulaguntza jaso eta hurrengo urtarrileko 31 baino lehen, Aiarako Udalako Erregistro Orokorrean agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Hitzarmen honen bitartez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako dirulaguntza guztien aitortpena.
- b) Foru Ogasunarekin eta Gizarte segurantzarekin ordainketak egunean daudelako agiria.
- c) Hitzarmen honetan diruz lagundutako jarduerari buruzko dokumentazioa:
 - Dirulaguntza emandako ekitaldiko Gastu eta Sarrerren balantzea, ekitaldian bi langileei ordaindutako nomina guztien kopiarekin.
 - TC-1 eta TC-2 kopia.
 - Diruz lagundutako urteko Jardueren Memoria.
 - Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta hori egin denaren zinpeko adierazpena.



Adostutakoarekin konforme daudela adierazteko, alderdiek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, ezabaketarik eta zuzenketarik gabe, dokumentua osatzen duen folio bakoitzean. Hura betetzeko konpromisoa hartu dute goiburuan adierazitako leku eta orduan.

AIARAKO UDALETXEKO
ALKATE-UDALBURUA,

ETXAURREN IKASTOLAKO
GURASO ELKARTEKO PRESIDENTEA,

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta jauna. Sin.- Ana Cristina Martínez Solaegi andrea.

IDAZKARIA.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos andrea.

Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.

BIGARRENA: Alkate-udalburuari aipatutako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Etxaurren Ikastolako guraso elkarteari jakinaraztea.

4.- Onestea, hala badagokio, Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresen errotulazioan euskara sartzeko 2021eko dirulaguntzak emateko Oinarri Arautzaileak; eta deialdia onestea

Gaiaren inguruan inolako iruzkinik egin gabe bozkatu egin da eta bertaratutako zinegotzien aho batez onetsi dute (Susana Martín Benavides andrea izan ezik bozketa egindakoa ez zegoelako.)

Honako hau dio:

HAU IKUSI DA.- 2010eko maiatzaren 20ko osoko bilkuran erabakitakoaren bidez, behin betiko onetsi zen Udal-dirulaguntzak arautzeko Ordenantza Orokorra, 2010eko ekainaren 9ko 63. ALHAOn argitaratua.

HAU AINTZAT HARTU DA.- Aipatutako ordenantzaren arabera, dirulaguntza emateko prozesuan alde zuzenetik deialdia egitea eta dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile batzuk onetsi beharko dira urte naturalaren irizpideari jarraituz.

HAU IKUSI DA.- Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresetako errotulazioan euskara sartzeko 2021erako dirulaguntzen oinarri arautzaileak.

HAU AINTZAT HARTU DA.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa.



Udalbatza Osoak, bertaratutako guztien adostasunez (11 zinegotzitik 10) **ERABAKI DU**

LEHENENGOA.- Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresetako errotulazioan euskara sartzeko dirulaguntzak emateko deialdia onestea.

BIGARRENA.- Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresetako errotulazioan euskara sartzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onestea. 2021. urtea eta testua hau da:

Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresetako errotulazioan euskara sartzegatik dirulaguntzen oinarri arautzaileak, 2021. urtea.

Lehenengoa.- Oinarrien xedea

Oinarri hauen xedea dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da. 2021ean Aiarako udalak, Euskara arloaren bitartez, Aiaran dauden merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduei eta zerbitzu-enpresei dirulaguntzak emango dizkie errotulazio-lan berrietan euskara sartzeko, indarrean dagoen deialdiaren aldian (2021. urtea. Jarduketa 2021eko abenduaren 31 baino lehen egin behar da.)

Laguntza horrekin euskararen agerpena indartu nahi da beste hizkuntza batzuek eta gaztelania bereziki, ia osotasunean, monopolizatzen duten arloan; horrela, errealitatea ofizialki onetsitako elebitasun egoerara hurbiltzen saiatzeko.

Era berean, eta bereziki, jarduera honen helburu soziolinguistikoa hizkuntza alorrean eragitea da, euskararen motibazioaren eta erabileraren eremuan jarduteko.

Dirulaguntza hauek Aiarako udalak onetsitako Udal-dirulaguntzak arautzeko Ordenantza Orokorrari lotuta daude; otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauari, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntza eta transferentzienari; azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrari; eta aplikagarri den lege ororen mende daude.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen errotulazioak

Laguntzak emateko alderdi hauek kontuan izango dira:

a) *Dirulaguntzak emango zaizkie hizkuntza txertaketei, baldin eta euskarri materiala hau bada:*

— *kanpoko errotulu nagusian establezimendua identifikatzen bada eta honetan onuradunaren jarduerari edo ezaugarriari buruzko informazioa ematen bada. Errotulu nagusia bakarra da.*

— *toldoen errotulazioan erakunde onuradunaren jarduerari buruzko informazioa edo honen informazio espezifikoa ematen bada. Ez ditu erakundearenak ez diren publizitate-elementuak babestuko.*

— *industria-ibilgailuen errotulazioan erakunde onuradunaren jarduerari buruzko informazioa edo honen informazio espezifikoa ematen bada. Ez ditu erakundearenak ez diren publizitate-elementuak babestuko.*

— *merkataritza informazioko plaketako errotuluak, baldin eta hauek atari edo sarbideen kanpoaldean badaude, bide publikotik ikusgai badira eta eskaintako zerbitzuari buruzko informazioa jasotzen badute, ataria, telefonoa edo antzekoak aipatzeaz gain.*

b) *Aurreko baldintzak betetzen badira eta errotulua bakarrik euskaraz badago, euskarri errotulatuaren zerga-oinarriaren ehuneko 70erainoko dirulaguntza emango da, eta oinarri hori dirulaguntza gastutzat hartuko da.*



Errotulua euskaraz ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere badago, euskarri errotulatuaren zerga-oinarriaren ehuneko 35erainoko dirulaguntza emango da, eta oinarri berri hori izango da dirulaguntza gastutzat hartuko dena.

Nolanahi ere, onetsitako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa deialdian zehaztuko da.

Errotuluan euskaraz gain beste hizkuntza batzuk ere agertuko balira, euskarak berdintasunezko edo lehentasunezko erabilera izan beharko luke dirulaguntza eskuratu ahal izateko. Horretarako, hurrengo irizpideak kontuan hartu beharko dira:

1. Irakurketa ordenari jarraituz, euskara beste hizkuntzak baino lehenago agertuko da. Hau da, antolaketa bertikala bada, euskara beste hizkuntzen gainean agertuko da; antolamendua horizontala bada, euskara ezkerrean agertuko da.

2. Erabilitako grafien edo testuen artean tamaina aldatzen badira, euskarazko bertsioak izango du tamaina handiena.

3. Beharrezkoa den guztietan hierarkia tipografikoak ezarriko dira; hauek jarraian zehazten den garrantzi handienetik txikienera ordenatuta daude. Edozein kasutan ere, euskarazko testuak eskala horretan beste hizkuntzarena baino maila handiagoa izango du:

- MAIUSKULAK > minuskulak.*
- Azpimarratua > Azpimarratu gabe.*
- Letra lodia > Letra normala.*
- Letra normal > Letra etzana.*
- Balio handia > Balio txikia*

4. Ezinbestekoak ez diren hizkuntzaren bat diskrimina dezaketen elementuak saihestuko dira; adibidez, helbideen erabileran “Iturran, 25” gisako moldeak lehentasuna izango du “C/ Iturran, 25 zk.” ereduaren aurrean, administrazio-hizkeraren gomendio orokorren eta nazioartekoaren arabera.

5. Bi hizkuntza-bertsioak bereizita egongo direnean, euskarazkoak beste hizkuntzek baino ikusmen-irigarritasun handiagoa edo berdina izango du.

c) Oinarri honetako a) eta b) atalak errotulazio elementu independente bakoitzari aplikatuko zaio; hau da, errotulu nagusi, toldo edo ibilgailu bat baino gehiago behar izanez gero, laguntzak biderkatuko dira.

d) Establezimenduek izen berezia, abizena, izen-abizenak, toponimoak edo antzekoak oinarri badituzte ez dira diruz lagunduko. Deialdi honen bidez zerbitzuaren izendapen osagai generikoen erabilera sustatu nahi da (harategia, okindegia, jatetxea...).

e) Behar bezala idatzita ez dauden lanak edo gramatika-akatsak dituztenak kanpoan geratuko dira. Horretarako, lana egin aurretik, Euskara Arloaren aholkularitza izango da.

Laguntzak emango dira, baldin eta errotulutako testua euskaraz badago (euskara hutsean edo beste hizkuntza batzuekin) eta errotuluaren euskarria establezimenduaren kanpo-errotulu identifikatzailean, toldoan edo ibilgailuan badago. Errotulu identifikatzaileetan ez dira diruz lagunduko bigarren mailakoak, soilik nagusiak.

Hirugarrena.- Dirulaguntzen deialdiaren zenbatekoa

Deialdi honetarako dirulaguntzen gehieneko diru-kopurua 2.000 € da.

Gastua Aiarako Udalaren 2021erako indarrean dagoen aurrekontuko 335471000 partidaren kontura egotziko da (“denda, enpresen eta abarrekotulazioa euskaraz egiteko dirulaguntza”).



Eskaera guztiei aurre egiteko aurrekontu esleipena badago, laguntza bere osotasunean ordainduko da. Halakorik ez balego, eman beharreko laguntza guztiak ehunekotan murriztu ahal izango lirateke erabilgarri dagoen aurrekontura egokitu arte.

Laugarrena.- Ebazpen eta haztapenerako balorazio-irizpideak

Laguntzen izaera kontuan hartuta, ez dago laguntzak baloratzeko irizpiderik ezartzerik.

Bosgarrena.- Eskatzaileak

*5.1.- Dirulaguntza eskatu ahal izango du: **Aiara udalerrian merkataritza- edo ostalaritza-establezimendua edo zerbitzu-enpresa duen edozein pertsona fisiko edo juridiko (nahitaezkoa izango da Aiarako udalerrian irekita dagoen merkataritza-establezimendua izatea).** Honek 2021. urtean diruz laguntzeko moduko jarduerak egin behar izan ditu edo egingo ditu, baldintza hauek betez:*

- Aiaran finkatutako helbide soziala edo egoitza.

- Udal honetako erregistroan zerga-betebeharrak eta Gizarte segurantzakoak egunean dituela egiaztatzea.

*- Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean biltzen denaren arabera, dirulaguntzen onuradun izateko debekurik **EZ** duela.*

5.2.- Debekuak: Ezingo dute parte hartu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea edo Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoen betekizunak betetzen ez duen edozein pertsona fisiko edo juridikoa.

Seigarrena.- Eskabideak aurkeztea eta epeak

6.1.- Eskabideak aurkezteko epeak: hilabete oinarriak ALHAOn argitaratzen direnetik. Eskabideak Aiarako Udalaren Erregistro Orokorrean, udal-bulegoetan; Aiarako Udalaren egoitza elektronikoan; edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aipatzen diren lekuetan.

6.2.- Eskabideen informazioa eta tramitazioa: deialdiari dagokion informazioa udaleko web orrian egongo da: www.aiarakoudala.eus.

6.3.- Gehitu beharreko dokumentazioa:

a) Diseinuaren proba, errotulu-testua eta lanaren aurrekontu xehatua. Eginda balego, fakturaren kopia konpultsatua; honekin batera ordainagiria aurkeztuko da.

b) Eskabidea pertsona fisiko batek izapidetzen badu, eskatzailearen NANaren kopia; pertsona juridikoa balitz, IFK txartelaren kopia, ordezkatzeko duen pertsonaren NANaren kopia eta pertsona fisiko hori pertsona juridikoaren legezko ordezkaria edo ordezkaria baimendua izatearen agiria.

c) Dirulaguntzaren ordainketa bideratzeko eskatzailearen izenean dagoen banku-kontuaren zenbakia.

d) Diruz lagundu daitekeen xede bereko beste dirulaguntza eskatu edo eman izanari buruzko zinpeko adierazpena. Erakundea, eskatutako zenbatekoa eta eman den edo ez adierazi beharko da.



e) *Foru Ogasunaren eta Gizarte segurantzaren betebeharren berri duela dioen administrazio eskudunak emandako ziurtagiria; halakorik eduki ezean, eskatzaileak sinatutako baimena aurkeztu beharko du bere izenean Aiarako Udalak Foru Ogasunarekiko eta Gizarte segurantzarekiko zergak ordaindu direlako agiria administrazio eskudunari eska diezaion (2. eranskina).*

6.4.- *Eskaera (pertsone fisiko edo juridiko bakoitzak eskaera bakarra aurkeztuko du eskatu nahi duen jarduketara kopurua edozein dela):*

1. *eranskina aurkeztu beharko da (behar bezala beteta eta sinatuta).*
2. *eranskina aurkeztu beharko da (behar bezala beteta eta sinatuta).*

Era berean, eskaera guztietan kontuan izan beharko da edozein dirulaguntzaren bidez lortzen den finantzaketaren osotasuna ezingo duela jarduketaren kostua gainditu.

Udalak egoki iritsitako argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei aurkeztutako eskaera hobeto baloratzeko.

Eskaera behar bezala gauzatuta ez balego edo daturik edo dokumenturik faltan baleude, eskatzaileari 10 egun baliouduneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; egingo ez balu eskaera bestelako izapiderik gabe artxibatuko litzatekeela adieraziz.

Zazpigarrena.- Balorazio-irizpideak

Bigarren oinarriko baldintzak betetzeak dagokion beka ematea dakar, nahiz eta hau aurrekontu-erabilgarritasunera lotuta egon.

Zortzigarrena.- Eskaeren azterketa eta ebaztea

Eskaerak Aiarako kuadrillako euskara-teknikariek aztertu eta baloratuko dute eta txostena egingo dute; Aiarako Udalaren Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeari txostenaren berri emango zaio. Beharrezkoa balitz, udalak aurkeztutako dokumentazioari buruzko datuak edo argibideak bildu ahal izango ditu azterketa edo balorazioa osatzeko.

Aiarako Alkate-udalburuak dagokion behin betiko ebazpena emango du. Akordioak laguntza eman edo ukatuko du eta erabakiaren zergatia izango du. Ebazpena edozein dela ere, hau urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aipatzen diren kasu eta forman aurkaratu ahal izango da.

Egokitzat jotzen den kasuetan, Euskara arloak datuak eskatu eta aurkeztutako dokumentazioari buruzko argibideak eskatu ahal izango ditu. Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aipatzen diren epeetan aurkezten ez badira, txostena atzeratu edo behin betiko artxibatu ahal izango da.

Erabakia dirulaguntza ematearen aldekoa bada, ebazpenean laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta baldintzak adieraziko dira.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabeteko epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ukatuzat joko da.

Bederatzigarrena.- Jakinarazpena eta ordaintzeko modua

Behin betiko ebazpena onetsi ondoren, eskatzaile guztiei helaraziko zaie. Ebazpena arrazoituko da eta, nolana ere, ebazpenaren oinarriak egiaztatuta beharko dira.

Dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda eta gainerako eskabideen gaitzespena jaso beharko ditu, betiere erabaki horien arrazoiak emanez.



Halaber, laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta emateko baldintzak azalduko dira, baita aurkeztutako justifikazioaren onarpena ere.

Dirulaguntzak ordaintzeko, honen justifikazio onetsi ondoren, zenbateko osoaren % 100 ordainduko da, hamargarren oinarrian adierazi bezala.

Ebazpena erabakitzeko eta jakinarazteko gehienezko epea HIRU HILABETEkoa da. Epea dagokion deialdia argitaratzen denetik kontuan hartuko da, salbu eta deialdi horrek efektuak ostean aterako baditu.

Hamargarrena.- Justifikazioa

10.1. Justifikazio-epea:

Pertsona edo erakunde eskatzaileek dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko dute 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen. Epe honetan, egindako jarduketari dagokion faktura guztiak, ordainagiriak eta oinarria eskatutako bestelako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

10.2. Dirulaguntzen justifikazioa:

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da eta ez soilik udalak emandako zenbatekoa, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean adierazi bezala.

10.3. Justifikazio-sistema:

Dirulaguntza justifikatzeko, onuradunak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

1. Egindako errotulazio-lanaren deskribapen laburra.

2. Jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak; gastua zati batean beste dirulaguntza edo baliabideren bidez finantzatu bada, merkataritza juridiko trafikoan baliokidea den edo eraginkortasun administratiboa duen kostua justifikatzen duten fakturak edo dokumentu frogagarriak.

3. Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.

4. Onuradunak Gizarte Segurantza eta zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, salbu eta dirulaguntza eskatzerakoan aurkeztu zituenak iraungi ez badira.

5. Egindako errotulazio-lanaren argazkia.

6. Zinpeko adierazpena diru-sarreraren eta gastuen likidazioan agertzen diren laguntzak jasotako bakarrak izan direla eta beste laguntza batzuk eskatu direla eta dirulaguntza eskatzeko eskabidean agertzen zirela egiaztatzen duena.

Eskakizun honetako bat o batzuk betetzen ez badira, emandako dirulaguntza baliogabetu ahal izango da.

2. Aiarako Udalak adostu dezake, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, 60.000 eurotik beheragoko dirulaguntzen Legeari dagokion 30. artikuluko 2. atalaren arabera, onuradunek 1.3 atalean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharrean, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrearen Erregelamenduaren 75. artikuluan araututako justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztea.

Hamaikagarrena:- Ordainketa



Aurreko oinarrian aipatutakoaren araberako justifikazioa aurkeztu ondoren, Aiarako Kuadrillako teknikariek dirulaguntzarako jarduera betetzeko eskatutako baldintzak betetzen diren ala ez adierazteko txostena egingo dute.

Teknikariek aldeko txostena bete ondoren, emandako dirulaguntzaren % 100 ordainduko da egindako eta/edo justifikatutako jarduna oinarri hauetan jasotako baldintzetan eskatutako baino txikiagoa izan bada, minorizazioei kalterik egin gabe.

Hamabigarrena.- Hartzailen betebeharrak

Laguntza hauen onuradunek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Laguntza ematea oinarritzen duen errotulazioa egitea.*
- b) Udalak emandako laguntzaren balizko egiaztapen-neurriak onestea.*
- c) Deialdi honen hamargarren oinarrian eskatutako egiaztagiriak aurkeztea.*

Hamahirugarrena.- Emandako dirulaguntza galtzea

Dirulaguntzen onuradunek beherago zehaztutako baldintzaren bat betetzen ez badute, Alkate-udalburuak dirulaguntza edo horren zati bat (jarduketaren zati bat betetzen ez bada) galtzea erabakiko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko dute, bai eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze-interesak ere, Aiarako Udalaren kontura transferentzia eginez.

Zentzu honetan jardungo duten balizkoak hauek dira:

— Eskieran edo dokumentazioan adierazitako datuak faltsutzea; ondorioz, dirulaguntza osorik galduko da eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko da.

— Dirulaguntza emateko jarduketaren helburua osorik edo partzialki ez betetzea; ondorioz, laguntza osorik edo honen zatiren bat galduko da.

— Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez justifikatzea; ondorioz, dirulaguntza osorik edo honen zatiren bat galduko da.

— Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, diruz lagundutako lanaren kostua gainditzea; honek emandako dirulaguntza murriztea eragingo du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko da.

— Aiarako Udalari beste dirulaguntza publiko edo pribatu eman direla ahalik eta lasterren ez jakinaraztea; nahiz eta Aiarako udalak dagokion likidazioa onetsi, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa galduko da, jasotakoa itzuli beharko da.

— Eta, orokorrean, oinarri hauetan onuradunentzat eta likidazioetan aurkeztu beharreko dokumentaziorako ezartzen den edozein betebeharrak ez betetzea.

Hamalauugarrena.- Zehapenak

Aiarako Udalak, dagokion espedientea ireki ondoren, hausteen larritasuna baloratu ondoren, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. kapituluko IV. tituluari jasotako diruzkoak edo ez izan daitezkeen zigorrak proposatuko ditu; hauek ez dute zerikusirik dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekin. Dena den, zigorra izateak dirulaguntzaren itzulpena emango du.

Establezimendu onuradunen administratzailea(k) edo legezko ordezkaria(k) jasotako zenbatekoa, gehi atzerapen interesa, itzultzeko arduradun subsidiarioak izango da/dira.

Hamabosgarrena.- Garapena eta interpretazioa



Oinarri hauek ulertzeko zalantzarik izanez gero, dagokion informazio-batzordeak txostena egin ondoren, Alkatetzak ebatziko du.

Oinarri hauetan aurreikusitako guztiari dagokionez, Aiarako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Arautzailean ezarritakoari jarraituko zaio.

HIRUGARRENA.- Deialdi hau Dirulaguntzen datu-base Nazionalean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Aipatutako oinarrien berri ematea hauen testu osoa ALHAOn iragarki batean, udaletxeko iragarki-taulan eta Udaletxearen webgunean.

5.- EAJ-PNV Udal-taldeak Afganistango egoerari buruz aurkeztutako mozioa

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du mozioa aldatu dela esateko; hau hizkuntza inklusiboagoa egiteko izan da.

Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi duenez, Informazio Batzordean azaldu zuen bezala, mozioa egokia iruditzen zaiela, baina harritzen dituela mota honetako beste arazo humanitario asko daudelako eta ez direlako landu. Bestetik, azaldu du ez dakiela zer neurri hartzen diren Aiaran migratzaileen kolektiboaren harrera eta integrazioa egiteko.

19:12an Susana Martín Benavides zinegotzi andrea bilkurara batu da.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du hori dagokion Batzordean lantzeko eta lan egiteko gaia dela.

Beste iruzkinik ez dagoenez, gaia bozkatu da eta korporazioko zinegotziek aho batez onetsi dute.

Honako hau dio:

HAU IKUSI DA.- EAJ-PNV Udal-taldeak Afganistango egoerari buruz aurkeztutako mozioa.

HAU IKUSI DA.- Informazio Batzorde Gizarte eta Osasun, Berdintasun, Immigrazio eta adineko pertsonen Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2021eko irailaren 14an.

Udalbatzak Osoak, bertaratutako guztien adostasunez (Udalbatza 11 zinegotzik osatzen dute, 10 bertaratu dira), **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- EAJ-PNV Udal-taldeak Afganistango egoerari buruz aurkeztutako mozioa onestea; horrek honako hau dio:

“EAJ-PNVren MOZIOA:



Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako Udalean EAJ-PNV Udal-taldearen bozeramailea eta indarrean dagoen Araudiaren babesean, hurrengo MOZIOA aurkezten du.

MOZIOA:

- 1. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu plazak eskain diezazkiola Gobernu Zentralari Eusko Jaurlaritzak nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako dituen baliabide propioetan; bai eta Gobernu Zentralak nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera egiteko dituen plaza libreak erabil ditzala ere.*
- 2. Eusko Jaurlaritzak 2018tik bultzatutako SHARE proposamena Europako agendan jartzea eskatzen dugu. Proposamen hori bizi dugun migrazio erronkaren aurrean erantzunkidetasun-printzipioa aplikatzera eta islatzera bideratuta dago. Printzipio hori aplikatzeak, gizarte inklusiboak eraikitzen bideratutako konpromiso arduratsuen bidez erantzuna partekatzea esan nahi du.*
- 3. Nazioarteko babesa behar duten pertsonak sartzeko legezko bideak ugaritu eta dibertsifikatu behar direnez, Gobernu Zentralari eta Eusko Jaurlaritzari Babes komunitario bezalako programak bultzatzen jarrai dezatela eskatzen diegu. Babes komunitario programak herritarrei aukera ematen die errefuxiatuak hartu eta integrazio lanean zuzenean parte hartzeko.*
- 4. Gobernu Zentralari Euskadin bizi diren 45 afganiarrekin elkarriketa indartu dezala eskatzen diogu haien senideen datuak errazago lortzeko eta familia berriz elkartzeko.*
- 5. Krisi humanitarioaren aurrean, inoiz baino beharrezkoagoa da migrazio-fluxuak leuntzea eta mugimenduak seguru egitea. Horretarako, korridore humanitarioak eskatzen ditugu gerragatik edo giza eskubideen beste edozein urratzeagatik beren herrialde utzi behar duten errefuxiatu guztientzat ibilbide seguruak bermatzeko.*

Arespalditzan, 2021eko abuztuaren 29an.

*SIN.....
EAJ-PNVko bozeramailea”*

Gai-zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu baino lehen, Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du eta adierazi du bere Udal-taldeak energia prezioei buruzko, premiazko izapideagatik, mozio erregistratua aurkeztu nahi diola osoko bilkurari.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du atzo mozioaren berri izan zuela eta ez duela astirik izan edukia behar bezala aztertzeko. Gobernu taldearen asmoa hurrengo Informazioa Batzordera eramatea da denboraz hartzeko, aztertzeko, eztabaidatzeko eta, hala badagokio, akordio batera iristeko.

Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) erantzun du asmoa osoko bilkura honetan eztabaidatzea zela, besteak beste, urriaren 8an energia-itzalaldia eta protesta egitea proposatzen delako. Hurrengo osoko bilkurarako uzten bada, data igarota egongo da eta ez luke zentzurik izango. Gobernu taldearen iritzia hori izanik hurrengo Informazio Batzordean azter daitekeela erantsi du.



6.- Alkatetzaren Dekretuen berri ematea. -

Ondoren, 2021/428 al 2021/524 arteko dekretuen berri eman zaio Udalbatzari, biak barne. Horren xedea honako hau da, laburbilduz:

ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDA. -

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/428.- JM.A.O.- Zuhatzako lursailean arekak zabaltzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/429.- E.I.M.- Izorian dagoen etxebizitzaren kanpoko arotzeria ordezkatzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/430.- Lexartzuko Administrazio Batzarra. - Lexartzuko plaza hormigoitzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/431.- J.G.A.- Murgan etxebizitza birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/432.- J.G.A.- Murgan etxaldea birgaitzeko obraren hondakinen kudeaketaren fidantza eskatu zaio.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/433.- MC.A.S.- Zuhatzako Jauregibengo auzoko 8 zenbakian banaketa horizontalaren ondorioz etxebizitza bat lehen aldiz okupatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/434.- J.I.A.- Dokumentazio osagarria Olabezarren finka bereizteko eta batzeko baimena emateko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/435.- U.E.O.- Zuhatzan udal-lizentziarik gabe etxebizitza birgaitzeko obragatik hirigintza berrantolatze-espedientearen ebazpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/436.-E.V.C eta E.V.O.- Salmantonen etxebizitzan obrak egiteko hirigintza-birgaitzeko espedientearen ebazpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/437.- Aiarako Kuadrilla.- HHS hondakinak kudeatzeagatik ekarpen ekonomikoa 2021eko 3. hiruilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/438.- Aiarako Kuadrilla.- Ekarpen ekonomikoa gastu orokorren eta bestelako gastuengatik, 2021eko 3. hiruilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/439.- Nortegas E. Distribución, SAU.- Energia hornitzeagatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 2. hiruilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/440.- Ned Suministro GLP, S.A.U.- Energia hornitzeagatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 2. hiruilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/441.- Fundación Benéfica Alday.- Arespalditzako partzela batean udal-lizentzia gabe negutegiak eraikitzeagatik zehapen-espedientearen ebazpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/442.- Orange Espagne. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 1. eta 2. hiruilekoak.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/443.- I.I.A.- Murgako Eliza Auzoko 12 zenbakian aurrealdean eta espaloia mantentze-lana egiteko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/444.- J.I.A.G.- Erretes Lantenon etxebizitza bat eraikitzeagatik zehapen-espedientearen ebazpena.



ALKATETZA DEKRETUA - 2021/445.- Opellorako Administrazio Batzarra.- Mendiko Auzotik ur-biltegirako bidea hormigoitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/446.- F.G.O.- Zuhatzako etxebizitzako aurrealdea konpontzeko obra egiteko epearen luzapena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/447.- M.I.E.B.- Arespalditzako Atxa Jauregiaren estaldura birgaitzeko udaleko obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/448.- A.M.A. Ibilgailuen behin betiko bajagatik ordaindutako 2021eko TMIZ ordainagiriaren parte itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/449.- Udal-funtzionario bati seme-alabak zaintzeko eszedentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/450.- Repsol Com. de Electricidad y Gas SLU. 2021eko 2. Hiruhilekoan energia hornitzeagatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/451.- Repsol Com. de Electricidad y Gas SLU. 2021eko 2. Hiruhilekoan gasa hornitzeagatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/452.- L.A.G.- Kexaan Billoda auzoko 11 zenbakia birgaitzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/453.- Soxoko Administrazio Batzarra.- Ubierte auzoan eta Soxoko Urruelan harri-lubeta eraikitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/454.- AM.G.H.- Lantenoko La Mota auzoko eraikina birgaitzeko hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea obra-lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/455.- Fundación Benéfica Alday.- Arezpalditzan landa-lursailen Bereizteko eta Batzeko Lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/456.- Ibaizabal Gaztetxea Gazteen Elkarteak.- 2020ko dirulaguntzaren justifikazioaren zati bat bete ez dela frogatuzat jotzea eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/457.- N.L.M.- A1 taldean finkatutako hirurtekoak aitortzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/458.- AM.G.H.- La Mota Auzoko Lanteno 26 zenbakian eraikina birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/459.- E.V.C. y E.V.O.- Zehapen-espeditentzia irekitzea Salmantonen lizentziarik gabe obrak egiteagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/460.- Ezkontza zibila egiteko Alkatetzari eskuduntzak ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/461.- T.G.B.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateko lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/462.- Kirolgest, SL- Luiaondon kirol-guneko lokala egokitzeko obra G.R. fidantza eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/463.- 2021eko uztaileko langileen eta alkatearen hilabeteko nominaren txostena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/464.- Elkarkidetzak Pentsioak.- 2021eko uztaileko likidazio-fakturaren ordainketa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/465.- AM.A.C. Ibilgailuen behin betiko bajagatik ordaindutako 2021eko TMIZ ordainagiriaren proportzio-zatia itzultzea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2021/466.- Arte, kultura eta kirol arloko ikastaroak eta tailerrak emateko zerbitzua kontratatzeko espedientea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/467.- Udalkideentzako ekarpen ekonomikoa, 2021eko uztaila.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/468.- Talde politikoentzako ekarpen ekonomikoa, 2021eko uztaila.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/469.- Kirolgest, S.L.- Luiandoko lokala kirol-gunea izan dadin egokitzeko eta aldatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/470.- Faesnor, S.A.L.- Hasitako hirigintza-berriztapen espedientearen araberako dokumentazioa aurkezteko emandako epea luzatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/471.- Aiarako Trikitixa Eskola – Aiarako Trikitixa Eskolaren zerbitzua kontratatzeko espedientea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/472.- Alkate jaunaren atribuzioen oporregatik eskuordetzea, 2021eko abuztua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/473.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.- 2021eko ekaineko kuota ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/474.- A.F.A. PFEZren atxikipenak ordaintzea 2021eko bigarren hiruhilekoan.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/475.- MC.A.S.- Zuhatzako etxebizitzan hodi elektrikoa bideratzeko obrara-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/476.- F/2021/8 erregistratutako fakturak onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/477.- 2021eko abuztuko langileen eta alkatearen hilabeteko nominaren txostena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/478.- Talde politikoentzako ekarpen ekonomikoa, 2021eko abuztua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/479.- Udalkideentzako ekarpen ekonomikoa, 2021eko abuztua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/480.- Regsiti Comercializadora SLU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 2. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/481.- Endesa Energía SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa 2021eko lehenengo seihilekoan zehar.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/482.- Energía XXI, SLU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa 2021eko lehenengo seihilekoan zehar.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/483.- A.C.P.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/484.-C. D. Bolos Lekubatxe Luiaondo.- Frogatutzat ematea 2020ko dirulaguntzaren justifikazioaren zati bat bete ez zela eta dirulaguntza horren zati bat ordaindu dela frogatutzat ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/485.- Luiaondoko Adminstrazio-batzarra.- Luiaondoko kultura-gunean traba arkitektonikoak kentzeko obrako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/486.- Agiñagako Adminstrazio-batzarra.- Herrira sartzeko kalean zolaketa-obrak egiteko udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatuta.



ALKATETZA DEKRETUA - 2021/487.- Izoriako Administrazio-batzarra.- Izoriako Arangutxiko bide-zorua hobetzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/488.- Menagarai-Beotegiko Administrazio-batzarra.- Menagaraiko Mendieta Auzoan HUAP instalazio fotovoltaikoa jartzeko udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/489.- Soxoko Administrazio Batzarra.- Soxoko Campijo eta Sobrevilla Auzoetako bideak hormigoitzeko obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/490.- Etxegoingo Administrazio-batzarra.- Etxegoingo landa-bidean metal-hesia jartzeko udal-lizentzia emanda.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/491.- I.L.I.- Murgan ogi-lantegirako jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazio jarduera garatzea onesteko dokumentazio gehigarria eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/492.- Zuhatzako Administrazio-batzarra.- Zuhatzako euri-uren saneamendurako sarearen obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/493.- MA.M.O.- Murgan etxebizitzaren estalkian eguzki-plakak jartzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/494.- AM.G.H.- La Mota auzoko Lanteno 26 zenbakia birgaitzeko Obra Hasteko Baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/495.- MI.R.L.- Olabazarren etxola birgaitzeko obretarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/496.- L.A.G.- Kexaako lursailletarako sarbidea eta hargunea urbanizatzeke obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/497.- J.U.P.- 2021eko TMIZ ordainagiriaren proportzio-zatia itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/498.- Panadería Zerrabe SL- 2021eko TMIZ ordainagiriaren proportzio-zatia itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/499.- Kirolgest SL- Luiaondoko kirol-gunearen alde z aurreko jakinarazpena behar duen jarduera-lizentziaren espedientea izapidetzen jarraitzeari uko egitea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/500.- Lexartzuko Administrazio-batzarra.- Lexartzuko hobi septikoa eta saneamendu-sarea berritzeko obretarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/501.- I.L.B.- Izoriako etxebizitzaren inguruan horma eraikitzeke obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/502.- Luiaondoko Administrazio-batzarra.- Luiaondoko kultura-gunean traba arkitektonikoak kentzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/503.- Eguneko arretarako landa-zentroa kudeatzeko gastuen zerrenda onestea eta ordaintzekoa agintzea, 2021eko ekaina eta uztaila.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/504.- Elkarkidetz a Pentsioak.- Likidazio-faktura ordainketa onestea, 2021eko abuztua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/505.- Kirolgest SL- Luiaondon kirol-guneko lokala



egokitzeko obrarako emandako obra-lizentziari uko egitea onestea eta hondakinen kudeaketarako fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/506.- JA.I.V.- Zuhatzan behi-aziendarako ukuilua eraikitzeko obraren hondakinak kudeatzeko fidantza eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/507.- F/2021/9 erregistratutako fakturak onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/508.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.- 2021eko uztaileko kuota ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/509.- Arte, kultura eta kirol arloko ikastaroak eta tailerrak emateko zerbitzua kontratatzeke espedientea esleitu gabe aitortzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/510.- Aiarako Trikitixa Eskola.- Aiarako Trikitixa Eskolaren zerbitzua kontratatzeke espedientea esleitu gabe aitortzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/511.- Arte, kultura eta kirol arloko ikastaroak eta tailerrak emateko zerbitzua kontratatzeke espedientea onestea. (2. deialdia)

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/512.- Aiarako Trikitixa Eskola - Aiarako Trikitixa Eskolaren zerbitzua kontratatzeke espedientea onestea. (2. deialdia).

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/513.- Menoioko Administrazio-batzarra.- Menoio eta Sierra Salvada arteko Sopeñako bideko GR284 tartean dagoen kanadar pasabidea aldatzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/514.- E.I.M.- Izorian etxebizitzan komuna berritzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/515.- X.H.A.- Espainiako gerra zibila, udal-artxiboko dokumentaziorako sarbidea eta kontsulta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/516.- Etxaurren Ikastola. Guraso Elkarte.- 2021eko ekaineko talde psikopedagogikoari eta bi urtekoen gelako laguntzaileari nominak ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/517.- 2021/517.- M.T.U.L.- Informazio publikorako sarbidea. Dokumentazioa kontsultatzea eta proiektu teknikoaren kopia.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/518.- Udalbatzen hauteskundeetarako biztanleen Udal-errolako 18 urtetik gorako pertsonen zerrenda onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/519.- AM.G.H.- Salbuespenen ondorioz obra-lizentzia emategatik egindako EIOZ likidazioa bertan behera uztea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/520.- Murgako Administrazio-batzarra.- Murgan haurrentzako parkea eta kirol-gunea instalatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/521.- Soxoko Administrazio-batzarra.- Soxoko landa-bideen sareko errodadura berritzeko obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/522.- Menagarai-Beotegiko Administrazio-batzarra.- Menagarai Mendieta Auzoan, 18 zenbakian, HUAP instalazio fotovoltaikoa jartzeko obrarako udal-lizentzia ematea

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/523.- Ozekako Administrazio-batzarra.- Ozekako Ulibarri auzoko hobi septikoa berritzeko obretako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatuta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/524.- Lexartzuko Administrazio-batzarra.- Hobi septikoa eta saneamendu-sarea berritzeko obretako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatuta.



Iruzkirik ez dagoenez, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

7.- Eskaerak eta galderak

Eskaerak eta galderak egiten hasi baino lehen, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du, jakingo denez, Laudioko hiltegia osasun- eta ingurune-arazoengatik itxi dela esateko, Laudioko hainbat alkatek deklaratu dute zerbitzuan eman diren hutsuneengatik. Laudioko udal-zerbitzua denez, ezer gutxi egin daiteke, hala eta guztiz ere, eskualde osoko sektorearentzako kalte oso garrantzitsua da. Horregatik, Aiarako Udala kaltetutako abeltzaintzako laguntza-lerroa ezartzearen aukera aztertzen ari da; baina irizpide guztiak kontuan izan behar dira.

Iratxe Parro Uzquino zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du laguntza udaleko gainerakotik lortuko den.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak baietz erantzun du, udal-laguntzak izatea pentsatu dela, baina faktore eta kasuistika guztiak ondo aztertu behar dira. Izan ere, kaltea ez da berdina izango sektoreko profesionalengan eta profesionalak ez direnengan, ez eta burua Burgosera eramaten duenarengan eta haragia han geratzen bada edo hau eskualdera bueltan ekartzen bada. Labur esanda, asko dira kontuan izateko faktoreak.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) arazoa eskualde osorako dela adierazi du. Hiltegiaren itxieraren aurkako manifestazioak egitea eskatu duen kaltetuen plataforma sortu da; beraz, laguntzak emateaz gain, hiltegia behin betiko itxi es dadin konponbidea bilatzea interesgarria litzateke, arazoari lehenetsuna ematea eta, laguntzez gain, beste aukera batzuk bilatzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du abeltzaintza-zinegotzia sektoreko ordezkariekin bildu dela esateko. Gaia nola konponduko den ikusteko zain daude; izan ere, hainbat faktorek eragin dute Udalak hiltegia ixtea: alkateen inputazioa, langileekiko betebeharrak ez betetzea, sortzen diren hondakinen kudeaketa praxi txarra... Oso egoera zaila dela gaineratu du; hurrengo batzordean gaia eztabaidatuko da. Adierazi du gobernu taldeak Laudioko Udalarekin batera jarraipena egiteko konpromisoa hartzen duela eta informatuko duela gehitu du.

Iratxe Parro Uzquino zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du sektoreko norekin bildu diren.

Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) sortu den plataformarekin erantzun du.

Gai honi buruzko beste iruzkinik ez dagoenez, eskaeren eta galderen txandari helduko diogu.

- Iratxe Parro Uzquino zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du ea Administrazio Orokorreko Teknikarirako plazaren espedientea nola dagoen.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak Ekainekin tramiteekin hasteko hitz egin dela erantzun du. Horretan ari dira.



- Iratxe Parro Uzquino zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) gaur egin den Etxaurren Ikastolako OOGaz galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) informatzailea izan dela erantzun du, seme-alabak baztertzen eta isolatzen dituztela salatu duten bi familiaren arazoaren berri emateko. Hezkuntza Saileko ikuskatzaile buruaren esku dagoela gaineratu du; haiek bideratuko dute gaia. Udaleko ordezkari den aldetik, irakasleriari, bizi duten egoeragatik, bere babes eskaintzera mugatu dela erantsi du; izan ere, familiek egindako salaketak oso gogorrak dira.

- Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) hitza hartu du Tubacexen borroka sindikalak aurrera jarraituko duela adierazteko. Urriaren 2an gatazkaren gastuetarako funtsak lortzeko jai-eguna egongo dela esan du eta honetan laguntzera eta parte hartzera bultzatu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailatik bidea ireki dela dirudiela; dei egin du alde guztiek onetsiko duten dokumentua egitera denboran luzatzen ari den gatazka hau amaitu ahal izateko.

Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) azaldu du, prentsan esanenez, badirudiela Eusko Jaurlaritzak proposatutakoak ez duela onarpen handirik izan langileen aldetik.

- Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) URAREN 3232 sarbideari buruz galdetu du, urbanizazio proiektu bat dela eta

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du nahitaezkoa dela URAK proiektu hauen berri ematea. Sarrera bidaliko dela erantsi du.

- Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) idazkariari Zuhatzako Plan Partzialari buruzko informea eskatu nahi diotela esan du.

Idazkariak esandakoa gogoan hartu du eta idatziz eska eta informazioa zein alderdi zehatzetik nahi duten adieraz dezaten esan du.

- Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du argiaren prezioen igoera dela eta urriaren 8an elektrizitatea deskonektatzeko ekitaldia deitua dagoela adierazi du, bai eta Euskadiren burujabetza elektrikoa eskatzeko eta zerbitzua kontrol publikokoa izateko ere.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogeita bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko irailaren hogeita hiruan.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

O.E.
ALKATE-UDALBURUA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.